

HERNANIK kronika

2002 urtea
Urtarrilak 12
Larunbata
Alea: 398
www.hkronika.com

KIROL TALDEAK KONPETIZORA, GABONAK ETA GERO

Lau kirol talde daude mailaz igotzeko burrukan sartuta

■ Orain arteko balorazioak positiboak dira kirol gehienetan ■ Boleibolean partidu

GABON garaia deskantsurako garaia izaten da kirol gehienetan. Horrela ba, Hernaniko ia talde guztiak geldirik egon dira eta gaur hasiko dituzte beren konpetizioak.

Denboraldian noraino iritsi litezkeen nahiko garbi izaten dute taldeek garai honetarako.

BOLEIBOLA

Hernaniarrak 1. Autonomikan daude. Aurrena daude eta bigarrena bi partidura dute. Apirila bukaeran estatuko ligarako igoera fasea jokatuko dute, horrela segi ezker. Eusebio arduradunak dioenez "uste baino aixago ari gera. Ez gaitu beldurtzen hain goian egoteak eta igotzera jokatuko degu".

ESKUBALOIA

Hirugarren daude lehen postutik puntu bakarrera, eta lehenengo biek jokatzen dute igotzera fasea. Ferradas entrenadorearen ustez "ondo ari gara, baina, gehiago egin genezakeen. Golik gehien sartu duen ekipoa gara eta gaizki atakatu dugu. Defentsa ere mehoratu behar dugu. Hala ere, oso goian gaude. Pixkat estutu ezker asko egin dezakegu".

MAHAI TENISA

Easo-Hernanik 3 talde dauzka senior mailan. Onena 2. nazionalan ari da eta bigarren dago. Txema Armentia entrenatzaileak balorazio ezin hobea egiten du "gauden mailan jokatze hutsa izugarria da eta bigarren postuan egotea zer esanik ez. Dena dela, goiko mailara igotzeari buruz hitz egingo dugu geroago. Putzu haundiak dira horiek".



Boleiboleko taldea kontrariorik gabe ari da egurrean.

ERRUGBIA

Liga Nazionaleko taldea laugarren dago. Lehenengo hiru partiduak galdu zituzten, baina, azken 4ak irabazi. Rafa arduradunaren ustez ekipoa ondo dago "aspaldiko partez goiko postuei begira gaude. 3garrenen bila goaz eta errespetoa jarri degu azkenean".

FUTBOLA

Mutiletan, Gorengo mailan, oso ona da ekipoaren egoera. Kaxkar hasi zuten denboraldia, baina, azken partiduak aidean ari dira irabazten. Mañel bigarren entrenatzaileak Kronikari adierazi dionez "euforia batean gaude. Ekipo berria da eta konpenetratzen kosta zaigu. Orain oso ondo ari gera. Aspaldiko partez, herriko jendearen apoioa sumatzen degu. Hirugarrenetik 4 puntura gaude. Datorren partidua bigarrenen kontra daukagu; irabazi ezker amets egiten hasi beharko degu".

Nesken taldea zazpigarren postuan dago. Azken lau partiduak irabazi dituzte eta bide

horretan segi nahi dute. Markos entrenatzailea gustora dago taldearekin "asko berriak dira eta pazientzi handiz ari beharra dago. Irabazteko irrikia sartzeko kosta zait gehiena, baina, badirudi orain gogoz ari direla".

PELOTA

Gipuzkoako Txapelketa orain-txe bukatu da. Hiru pelotarik lortu dute txapela eta Euskal Herrikora dijoaz beste 7 hernaniarrekin. Rufino arduraduna "oso gustora" dago hernaniarrekin emandako mailarekin. Gainera, aurtengo *interpueblo*-setarako "izugarriko ekipoa" daukate prestatuta eta "punta puntan" ibiliko omen dira.

WATERPOLOA

Euskal Herriko ligako 1. mailan dago Hernaniko mutilen lehenbiziko taldea. Joan den urtean igo ziren eta aurten mailari eustea dute helburu. Ibon entrenatzailearen ustez "seguru aski jeisteko fasea jokatu beharko degu, baina, oraingo puntuak kontaktu egi-

KLASIFIKAZIOAK

| BOLEIBOLA- 1. Autonomika | | | | |
|--------------------------|-------|------|------|---|
| Taldeak | Punt. | Ira. | Gal. | |
| 1 UPV-Hernani | 20 | 10 | 0 | 0 |
| 2 UPV-Bizkaia | 20 | 9 | 2 | |
| 3 Antonio Trueba | 19 | 8 | 3 | |

| ESKUBALOIA- Euskal Herriko liga | | | | |
|---------------------------------|-------|------|------|------|
| Taldeak | Punt. | Ira. | Gal. | Enp. |
| 1 Elgoibar | 13 | 6 | 1 | 1 |
| 2 Urdaibai | 13 | 6 | 1 | 1 |
| 3 Hernani | 12 | 5 | 2 | 0 |
| 4 Ermua | 8 | 4 | 4 | 0 |

| MAHAI TENISA- 2. Liga Nazionala | | | |
|---------------------------------|-------|------|------|
| Taldeak | Punt. | Ira. | Gal. |
| 1 Atl. San Sebastian | 14 | 7 | 0 |
| 2 Atl. Easo-Hernani | 14 | 6 | 2 |
| 3, 4 | | 11 | 4 |

| ERRUGBIA- Liga Nazionala | | | | |
|--------------------------|-------|------|------|------|
| Taldeak | Punt. | Ira. | Gal. | Enp. |
| 1 Caja Cantabria | 17 | 8 | 0 | 1 |
| 2 Durango | 15 | 7 | 1 | 1 |
| 3 Ordizia | 14 | 7 | 2 | 0 |
| 4 Hernani | 10 | 5 | 4 | 0 |

| FUTBOLA- Gorengo maila | | | | |
|------------------------|-------|------|------|------|
| Taldeak | Punt. | Ira. | Gal. | Enp. |
| 1 Elgoibar | 38 | 12 | 5 | 2 |
| 2 Zarautz | 36 | 10 | 3 | 6 |
| 3, 4, 5, 6 | 35 | 10 | 4 | 5 |
| 7, 8 | 32 | 9 | 5 | 5 |
| 9 Hernani | 31 | 10 | 4 | 5 |

| FUTBOLA- Emakumezkoen liga | | | | |
|----------------------------|-------|------|------|------|
| Taldeak | Punt. | Ira. | Gal. | Enp. |
| 1 Aurr. de Vitoria | 45 | 15 | 0 | 0 |
| 2 Ostadar | 40 | 13 | 2 | 1 |
| 3, 4 | 30 | 9 | 4 | 3 |
| 5 Alde Zaharra | 26 | 8 | 6 | 2 |
| 6 Hernani | 21 | 6 | 7 | 3 |

| WATERPOLOA- Euskal Herriko liga | | | | |
|---------------------------------|-------|------|------|------|
| Taldeak | Punt. | Ira. | Gal. | Enp. |
| 1 Askartza | 16 | 5 | 1 | 1 |
| 2, 3 | 13 | 4 | 2 | 1 |
| 4 Santurtzi | 10 | 3 | 3 | 1 |
| 5 Hernani | 7 | 2 | 4 | 1 |

| WATERPOLOA- Euskal Herriko liga | | | | |
|---------------------------------|-------|------|------|------|
| Taldeak | Punt. | Ira. | Gal. | Enp. |
| 1, 2 | 12, 9 | 4, 3 | 0, 1 | 0, 0 |
| 3 Leioa | 6 | 2 | 2 | 0 |
| 4 Santoña | 3 | 1 | 3 | 0 |
| 5 Hernani | 0 | 0 | 4 | 0 |

ten dira, beraz, puntuak lortu beharrean gaude".

Nesken ekipoa oker xamar dabil. Lautik lau galdu dituzte. Dena dela "gero eta hobeto" ari dira Ibonen ustez. □

Elur-Txorik asanblea igandean

■ Goizeko 10:00etan da.



Koldo Monge da orain Elur-Txori elkartereko lehendakari.

ELUR-Txori elkarterek urteko asanblea egingo du igandean, elkarterean bertan. Aurten Elur-Txorin junta aldaketa egokitzen da eta talde berri batek hartuko du ardura hori. Asanblea goizeko 10:00etan hasiko da. □

9 orduko mendi buelta

■ Mendiriz Mendik 9 orduko mendi buelta egingo du igandean Burgos eta Cantabriako mugan: *Pto de los Tornos* (920 m)-*Zalama* (1.336 m)-*Kolitz* (879 m)-*Pandozales* (283 m). Goizeko 06:00etan aterako dira Atsegindegitik. □

Piszina itxita

■ Gaur jendearentzat igerilekua itxita egongo da, 09:00-etatik 11:00-etara, eskolarteko igeriketa probak jokatuko direlako.

Behemendi azoka gaur

■ Gaur Behemendiko azoka egingo da Hernanin. Goizeko 09:30etatik 14:00ak arte.

Ford

Antziola-Motor
Zorionak eta urte berri on!
Ikusi al duzu Mondeo berria?

Antziola-Motor

- ▶ Kotxe berri eta aukerako salmenta
- ▶ Tailer mekanikoa, elektrizitatea eta elektronika
- ▶ Aseguruen gestioa
- ▶ Finantziarioak
- ▶ Kotxeak jaso eta leku berera itzultzen ditugu

Antziola Motorren ikusi eta probatu egin dezakezu.

Antziola auzoa 12 - Tel. 943 55 57 72 - Faxe 943 55 21 96 HERNANI

OIALUME BILTOKIA.

Igande eta jai egun guztietan dantzaldia

19:30etatik aurrera
OIALUME AUZOA - 943 55 29 38

ESKEINTZAK
kotxerako osagarriak antenak
esku libre fijoak
instalazio gabeko esku libreak
soporteak

Movistar Activa
Mobiletan eskeintza bereziak:
ALCATEL
87,15 euro
(73,12 deietan).
e-moción

Telemar
ITXASTELE S.L. Telyco denda
Elkano 13, 943 33 26 00

“Gure buruaren mediku geuk izan behar dugu”

■ Ostegunean hasi ziren ikastaroak ■ Gaixotzeak gorputza sendatzeko balio duela azpimarratu zuten.



‘Sumendi’ Elkarteko kidea hitzaldia ematen, herenegun.

SUMENDI elkarteak 12 egunezko ikastaroa ematen ari da Biteri Kultur Etxean. Osasunari buruzkoak dira ikastaroak, hain zuzen, medikuntza alternatiboa da berak planteatzen dutena.

Badirudi interes handia piztu dutela ikastaro hauek Hernanin. Ostegunean izan zen lehenbizikoa eta Biteriko hitzaldi gela bete-bete eginda egon zen.

MEDIKAMENTU NATURALA

Osteguneko hitzaldian, *Sumendiko* kideak gaixotasunari buruz hitz egin zuen gehienbat “gorputza sendatzeko arma bat da eta ez dugu frenatzen saiatu behar. Gaixotasuna pasa egin behar da eta horrela sendatuko gara”.

Hurrengo hitzaldia, datorren ostegunean, 19:00etan, Biteri Kultur Etxean. □

N-1 ean 80 Km orduko belozidate limitea, Andoaindik Donostiara

■ Astelehenetik aurrera, kamioiek ezingo dute ‘aurreratu’ Andoaindik Donostiako bariantea bitartean. ■ Diputazioak zirkulazioa hobetzeko hartutako neurriak dira.



Kamioiek astelehenetik aurrera ezingo dute adelantamendurik egin, Bazkardotik Donostia pasa arte.

DONOSTIA inguruko kotxe zirkulazioa nolakoa den jakiteko, Valentziako Unibertsitateak estudio bat egin du. Orain, Diputazioa zenbait neurri hartzen ari da, errepide-tako zirkulazioa hobeto kontrolatzeko.

ABENDUA EZKERO

Abendua ezker, Andoaindik Donostiarako bidean gehieneko abiadura da: 80 km/orduko

Neurri hori kotxe, kamioi eta gainerako ibilgailu guztientzat da.

KAMIOIEK AURRERATU EZIN

Andoaingo Bazkardotik A-8 autobideko Donostiako saihesbidera bitarteko tramo batean, kamioiek eskubiko karriletik joan beharko dute, adelantatzeko aukerarik gabe; eta baita Herrerako saihesbide

osoan ere (norma ez da autobusentzat). Neurri hori datorren astelehenean sartuko da indarrean.

ARIZETATIK BARRENA, LIBRE

Hala ere, kamioiek orain arte bezala aurreratu lezakete Arizetako enlaze berritik barrena ibili ezker, tramo horretan behintzat. Hori pasata, ostera ere ezin dute aurreratu. □

■ ERRUGBIA

Jubenilak Euskadiko txapelaren bila, Landaren

■ Getxoren kontra

ERRUGBIKO jubencil taldea Euskal Herriko txapela irabazteko bidean da. Hernaniarrak sailkapenean aurrea dijoaz eta partidu bakarra irabazteko nahikoa dute Liga irabazteko. Landareko mutilek Getxo talde bizkaitarra izango dute aurrean: ez ligako ekiporik errezena, baina, Hernanik menderatzeko modukoa bai. □



Jubenilak partidua jokatzen.

■ BOLEIBOLA

Partidu erreza, gaur, Hernanik

■ Hernani lehenengo dago eta irabazteko partidua du gaurkoa. Errekaldereen kontra jokatzen du, gaur, Bilbon.

■ ESKUBALOIA

Gaur irabaztea beharrezkoa

■ Hernanik aurrean segitzeko irabazi egin behar dio Askartzari, gaur, 17:30etan, kiroldegian. □

■ WATERPOLOA -Euskadiko liga-

Hernani bigarrenaren kontra, gaur, Iruñan

■ UPNaren kontra jokatuko du, gaur, Hernaniko mutilen aurreko taldeak. Joaneko partidua galdu egin zuten, baina, justu-justu: 3-5. Oraingoan, ordea, indartsuago daudela esan digu Hernaniko entrenatzaileak “nahiz eta azken aurrenak egon, ez gera hain gaizki ari. Gainera, puntuak behar ditugu eta Iruñara ez goaz ezer erregalatzera”. □

■ FUTBOLA

Partidu gogorra, bihar, Zarautzen kontra

■ Gorengo mailan, bigarrenen kontra jokatzen du Hernanik. Azken aldi oso ondo ari dira hernaniarrak. Bihar irabazi ezker, postu ederrean jarri daitezke.

Erregionalak Berion du partidua, gaur, 19:15etan, bigarrenen kontra. Hernaniarrak azken aurren dijoaz eta ez dute erreza edukiko partidua irabaztea. □

IRAGARKI MERKEAK

■ Haur bat zaintzeko neska behar dugu. 08:00etatik 17:00etara. Deitu, 20:00etatik aurrera, 943 553766 (Lurdes).

■ Astebuetarako zerbitzaria behar da Hernaniko jatetxe batean. Deitu 943 330291.

■ Donostiako Antiguu auzoan, pertsona euskaldun bat behar dugu, goizetan haurra zaintzeko. Deitu 943 215510 (Amaia).

| KIROLAK - ASTEBURUKO PARTIDUAK | | | | | | | |
|--------------------------------|----------------------|--------------------|--------------|------------------------|-------------------|-------------|--------------|
| FUTBOLA | TALDEAK | NON | NOIZ | WATERPOLOA | TALDEAK | NON | NOIZ |
| Gorengo maila | Hernani-Zarautz | Zubipe | Bihar, 16:30 | Euskal Hko. Liga | UPNA-Hernani | Iruñan | Gaur, 17:00 |
| 1. Erregionala | Sto Tomas-Hernani | Berio | Gaur, 19:15 | Euskal Hko 2. Maila | Hernani B-Osasuna | Kirolde. | Bihar, 13:00 |
| Gazteak. L. Naz. | Hernani-Real Union | Zubipe | Gaur, 16:30 | ERRUGBIA | | | |
| Gazteak Ohor. | Hernani-Aldapetarrak | Zubipe | Bihar, 11:30 | 1 Euskal Liga | Gernika-Hernani | Urbietan | Bihar, 11:00 |
| Kadeteak Ohor. | Antiguoko-Hernani | Berio | Gaur, 12:00 | Jubenilak. Euskal Liga | Hernani-Getxo | Landare | Gaur, 16:00 |
| Kadeteak 2. Maila | Texas-Hernani | Michelinen | Gaur, 15:30 | Kadeteak. Euskal Liga | Hernani-Arrasate | Landare | Gaur, 11:00 |
| Haurren Ohor. | Hernani-Arrasate | Zubipe | Gaur, 11:30 | ESKUBALOIA | | | |
| BOLEIBOLA | | | | TALDEAK | | | |
| 1. Autonomikoa | Errekalde-Hernani | Bilbon | Gaur. | Euskal Herriko liga | Hernani-Askartza | Kiroldegian | Gaur, 17:30 |
| PELOTA | | | | | | | |
| BIKOTEAK | | BIKOTEAK | | NON | | NOIZ | |
| Kronika txapelketa | Tutu-Iturbe | Intraxupe-Goiburur | Tilosetan | Gaur, 16:00 | | | |
| Kronika txapelketa | Joxe-Zelaia | Alvarez-Arruti | Tilosetan | Gaur, 16:00 | | | |

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak: 943 550093
 ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
 ▶ DYA: 943 464622
 ▶ Autobusak: 943 556662
 ▶ Anbulatorioa: 943 557750
 ▶ Jokalari anonimoak 943 331103

☼ FARMAZIAK

▶ Egunez: Gorospe
 Andoain. Rikardo Arregi 12
 ☎ 943 592415
 ▶ Gaez: Bulnes
 Etxeberri
 ☎ 943 557738